Bestelako Xedapenak

**INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

2324

77/2011 DEKRETUA, apirilaren 12koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluko kide bat izendatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2010eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legearen bigarren xedapen gehigarrian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortzea ebatzi zen, nortasun juridiko propioa duen zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa; erakunde horrek jarduteko gaitasun osoa du bere helburuak bete ahal izateko eta enpleguaren arloan eskuduna den Jaurlaritzaren sailari atxikia dago.

2011ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen azaroaren 30eko 329/2010 Dekretua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartzekoa; dekretu horren 12. artikuluak honako hau xedatzen du:

«1.– Administrazio Kontseilua Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren gobernu-organo gorena da. Hiru aldekoa, paritarioa eta erabakigarria da.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua honako kide hauek osatzen dute:

a) Presidentea: enpleguaren alorrean eskuduna den sailaren pertsona titularra.

b) Presidenteordea: enpleguaren alorrean eskuduna den sailburuordetzaren pertsona titularra.

c) Kontseilukideak:

1.– Hiru kontseilukide, sailburuorde edo zuzendari lerrunarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren ordezkaritzan. Horien izendapena eta kargu-uztea Eusko Jaurlaritzaren dekretuz erabakiko da, hezkuntza, industria eta ogasunaren alorrean eskudun diren sailetako titularrek proposatuta, hurrenez hurren. Aipatutako azken sailak izendatutako kontseilukideak bileretan parte hartuko du, eta hitza izango du, baina botorik ez.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko enpresaburuen elkarteek izendatutako bost kontseilukide; elkarte horiek aplikatzekoa den araudi orokorraren arabera enpresaburuen ordezkaritza instituzionala dutenak

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES**

2324

DECRETO 77/2011, de 12 de abril, por el que se nombra un miembro del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

La Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010, creó en su disposición adicional segunda Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, configurándolo como un ente público de derecho privado, dotado con personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines, y adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de empleo.

El día 1 de enero de 2011 entró en vigor el Decreto 329/2010, de 30 de noviembre, por el que se aprueban los estatutos de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, cuyo artículo 12 señala lo siguiente:

«1.– El Consejo de Administración es el órgano superior de gobierno de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo. Tiene carácter tripartito, paritario y decisorio.

2.– El Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo está integrado por las y los miembros siguientes:

a) Presidente o presidenta: la persona titular del departamento competente en materia de empleo.

b) Vicepresidente o vicepresidenta: la persona titular de la viceconsejería competente en materia de empleo.

c) Vocales:

1.– Tres vocales, con rango de viceconsejero-viceconsejera o directo directora, en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuyo nombramiento y cese se acuerda mediante Decreto del Gobierno Vasco a propuesta, respectivamente, de las personas titulares de los departamentos competentes en materia de educación, industria y hacienda. La persona que ostente la condición de vocal por designación del último departamento citado, asistirá a las reuniones con voz pero sin voto.

2.– Cinco vocales designadas o designados por las asociaciones empresariales de la Comunidad Autónoma de Euskadi que ostenten la representación institucional de los empresarios según la normativa gene-

izango dira, eta Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez izendatuko dira.

3.– Ordezkaritzarik handiena duten erakunde eta konfederazio sindikalek izendatutako bost kontseilukide, Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez izendatuak. Kontseilukide horiek, erakunde sindikal bakoitzak Euskal Autonomia Erkidegoan egiaztatuta duen ordezkagarritasunaren arabera proportzionalki esleitzen dira, eta edozein kasutan bermatzen da ordezkagarrienak diren erakunde eta konfederazioek Administrazio Kontseiluan presentzia izango dutela.

Aurrekoa gorabehera, kontseilukideak izendatzeko eskubidea duen erakunde sindikalen batek ez badu inor izendatzen horretarako ezarrita dagoen epearen barruan, postu horiek bere taldeko gainerako erakundeei gehiagotuko zaizkie, beren ordezkagarritasunaren arabera proportzionalki.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia».

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jardueren hasiera eta bitarteko pertsonal eta materialetarako atxikimendurako baldintzak arautzen dituen abenduaren 28ko 354/2010 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian, hauxe dio:

1.– Dekretu hau argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita hamabost eguneko epean, Administrazio Kontseiluaren batzordekideak izendatzeko betebeharra duten (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuei jarraiki) sindikatuek eta enpresa-erakundeek titularrak, eta hala badagokio, ordezkoak izendatzeko dagozkien erabakiak hartuko dituzte, eta baita organoaren zuzendaritzan izendapen horiek jakinarazi ere. Idazkaritzak berehala jakinaraziko dizkio hautespen-erabakiak Enplegu eta Gizarte Gaien Saileko titularrari, Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkezteko eta bertan izendapena gauzatzeko.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatuen gaur egungo ordezkagaitasunari jarraiki, Administrazio Kontseiluaren sindikatu-taldeko bost batzordekideen hasierako banaketa honako hau da:

– Eusko Langileen Alkartasuna/Solidaridad de Trabajadores Vascos (ELA-STV): bi batzordekide.

– Euskadiko Langile Komisioen Konfederazio Sindikalak (CCOO): batzordekide bat.

– Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB): batzordekide bat.

– Unión General de Trabajadores de Euskadi (UGT): batzordekide bat.

3.– Confebask Euskal Enpresa Konfederazioari dagokio enpresaburuen ordezkaritza osatuko duten batzordekideak izendatzea.

ral de aplicación, y nombrados mediante Decreto del Gobierno Vasco.

3.– Cinco vocales designados o designadas por las organizaciones y confederaciones sindicales que ostenten la condición de más representativas, y nombrados mediante Decreto del Gobierno Vasco. La atribución de vocales se realiza de forma proporcional a la representatividad acreditada por cada una de ellas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, garantizándose, en todo caso, la presencia en el Consejo de Administración de las organizaciones y confederaciones que ostenten la condición de más representativas.

Sin perjuicio de lo anterior, si alguna de las organizaciones sindicales que teniendo derecho a designar vocales no lo hiciera en el plazo establecido al efecto, estos puestos acrecerán al resto de entidades de su grupo, proporcionalmente a su representatividad.

d) El Director o Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo».

Por otra parte, el Decreto 354/2010, de 28 de diciembre, por el que se regula el inicio de actividades de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo y las condiciones de adscripción de medios personales y materiales, señala en su disposición adicional primera lo siguiente:

1.– Dentro de los quince días siguientes a la publicación del presente Decreto las organizaciones sindicales y empresariales a las que, de acuerdo con lo previsto en los estatutos de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, corresponde designar vocales del Consejo de Administración, adoptaran los correspondientes acuerdos de designación de titulares y, en su caso, de suplentes, y los comunicarán a la Secretaría del órgano. La Secretaría dará cuenta, de forma inmediata, de los acuerdos de designación a la persona titular del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales para la elevación al Consejo de Gobierno a efectos de que se proceda a su nombramiento.

2.– Atendiendo a la representatividad actual de las organizaciones sindicales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la distribución inicial de los cinco vocales del grupo sindical del Consejo de Administración es la siguiente:

– Eusko Langileen Alkartasuna / Solidaridad de Trabajadores Vasco (ELA-STV): dos vocales.

– Confederación Sindical de Comisiones Obreras de Euskadi (CC.OO.): un o una vocal.

– Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB): un o una vocal.

– Unión General de Trabajadores de Euskadi (UGT): un o una vocal.

3.– Corresponde designar a los o las vocales que integran la representación de los empresarios a la Confederación Empresarial Vasca-Confebask.

Lehen aipatutako xedapenaren lehenengo paragrafoan zehaztutako epea igarota, urtarrilaren 18ko 5/2011 Dekretuari jarraiki, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluko kideak izendatu ziren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatzeko izendatutako batzordekideen artean, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Industria Garatzeko zuzendari den Juan José Garayar Elizondo jauna dago.

5/2011 Dekretua onartu eta argitaratu eta gero, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendari den Yolanda López Fernández andrea izendatu du Juan José Garayar Elizondo jaunaren ordezko izateko.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko apirilaren 12an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendari den Yolanda López Fernández andrea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluko kide izendatzen da, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Industria Garatzeko zuzendari den Juan José Garayar Elizondo jaunaren ordezko izateko.

2. artikulua.– Lehenago aipatu izendapenak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuen 12.3 artikuluan xedatzen den iraupena izango du.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 12an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza
eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

Transcurrido el plazo señalado en el párrafo primero de la disposición antedicha, en virtud del Decreto 5/2011, de 18 de enero, se procedió al nombramiento de miembros del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

Entre los vocales nombrados en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi se encuentra D. Juan José Garayar Elizondo, Director de Desarrollo Industrial del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

Con posterioridad a la aprobación y publicación del Decreto 5/2011 el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo ha designado a Dña. Yolanda López Fernández, Directora de Administración y Seguridad Industrial, como representante suplente de D. Juan José Garayar Elizondo.

Por todo lo anterior, a propuesta del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo y de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión el día 12 de abril de 2011,

DISPONGO:

Artículo 1.– Se procede al nombramiento de Dña. Yolanda López Fernández, Directora de Administración y Seguridad Industrial, como miembro del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, en calidad de vocal suplente de D. Juan José Garayar Elizondo, vocal representante titular del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

Artículo 2.– El nombramiento antes referido tendrá la duración establecida en el artículo 12.3 de los Estatutos de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de abril de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Industria, Innovación,
Comercio y Turismo,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.